

## **2016KO ABENDUAREN 15EAN EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2016ko abenduaren 15ean, arratsaldeko 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

### **Zinegotziak:**

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna EAJ-PNV taldeko zinegotzia, ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren aparteko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai hau eztabaidatu eta erabagi da:

**Puntu bakarra: BAKIOKO KIROLDEGIA KUDEATU ETA USTIATZEKO ZERBITZUAREN ADMINISTRAZINO KONTZESINOAREN KONTRATAZINOA DALA ETA, KONTRATAZINO MAHAIAREN PROPOSAMENA ONARTU ETA AURKEZTU DAN LIZITATZAILE BAKARRARI ADMINISTRAZINO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIAREN 15. KLAUSULAN AZALTZEN DAN DOKUMENTAZINOA ESKATZEKO ERABAGIA HARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Atoan, Udal Idazkariak, hauxe adierazo dau:

“Bakioko Udaltzaren 2016ko urriaren 27n egindako ohiko bilera erabagi hau hartu eban: *Bakioko Udaleko kirol instalazioetan kirol jardueren planifikazioagaz eta garapenagaz eta sarbideen kontrolagaz zerikusia daukien zerbitzua emoteko eta bertan aurrera eroango diran prestakuntza ikastaroak modu integrarean kudeatzeko esleipenari buruzko prozedurari hasikera emotea, bai eta kontratazino espedientea onartzea be, kontratua eraenduko daben administrazio klausulen eta baldintza teknikoan orriak barruan dirala, adjudikazioa prozedura zabal bitartez izapidetzea erabagiz, bai eta kontratuak urtebeteko iraupena izango dauka be (kontratua urtebete luzatzea ahal izango dan arren).*

Horren ostean, lizitazioaren deialdiaren buruzko iragarkiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko taulan eta kontratugilearen profilean argitaratu ziran legeriak ezarritako epean, interesdunek bidezko proposamenak aurkeztu eiezan.

Deialdiaren barruan (azkeneko eguna 2016/11/14a izanik), lizitatuak bakarra aurkeztu zan, “BI SPORT” eta “KONECTIA SERVICIOS INTEGRALES S. L.” enpresek osotutakoa, hain zuzen be”

Berbaldi hori amaitu eta berehala Amets Jauregizar alkate andreak adierazo dau lizitatuak horrek kiroldegiaren ustiapena eta kudeaketa hartzearen begi-bistako ondorioak honek izango dirala, besteak beste:

- *Kiroldegiaren jarduerari buruzko prezio publikoak barriro indarrean ipintea; izan be, euren zenbatekoak eta ordenantza arautzailea Udaltzaren 2016ko irailaren 22an onartu ebazan.*
- *Kiroldegiaren kudeaketagaz arduratako dan adjudikatuak (goian aitaturakoak) Bakioko Udaltzaren 16.275 euroko kanona ordaintzea, beraz, oraingoak ordaintzen dauana baino asko gehiago.*
- *Adjudikatuak barriak kiroldegia egunero goizez zabaltzea.*

Gauzak horrela, Kontratazino Mahaiak, 2016ko zementziaren 29an, lizitatuak horren alde egindako proposamenaren ganean eta espedientean ageri dan dokumentazioaren ganean be udaleko talde politikoak jakitun diran ezker; zementziaren 14ko 3/2011 legegintzako errege-dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 151.3 artikulua ezarritakoaren arabera, EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta Bakiobai taldea osotzen daben bi zinegotzien (Alain Gómez eta Josu Garai) aldeko botoagaz, korporazioa lege osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udaltzaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

**Kontratazino Mahaiak 2016/11/29an egindako proposamena ontzak emotea eta “BI SPORT” y “KONECTIA SERVICIOS INTEGRALES S. L.” enpresei eskatzea bost asteguneko epean beharrezko dokumentazioa aurkezteko, beti be agin-deia jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita; dokumentazioa ondorengoa izanik:**

- Zerga betebeharrak egunean ordainduta daukazala justifikatzen dauen dokumentazioa (egiaztagiri positiboa).
- Jarduera ekonomikoen ganeko zergari lotutako jarduerak egiten diranean, alta agiria aurkeztu beharko da indarreko ekitaldiari jagokonez, edo azken jasoagiria; haregaz batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da zerga horren matrikulan bajarik ez dala izan adierazoz eta, hala bajagoko, erantzukizunpeko adierazpena zerga horretatik salbuetsita dagoala adierazoz.
- Gizarte Segurantzazagaz betebeharrak egunean ordainduta daukazala justifikatzen dauen dokumentazioa (egiaztagiri positiboa) edo kontratazino organoari baimen hori emotea egiaztapena zuzenean eskurtzeko (HAKLA Oren 13. artikulua eta hurrengoak).
- Kontratua beteteko zuzendu edo erabili beharreko baliabideak benetan daukazala egiaztatzen dauen dokumentazioa.
- Aseguru kontratuaren kontratazino polizaren kopia eta primaren ordainagiria edo, hala bajagoko, poliza horreek kontratatzeke konpromisoa, lizitazio honen adjudikazinodunak izan ezkerok; adjudikazinodunak kontratu eta mantendu beharko dau kontratuak eta berme epeak irauten daben bitartean (beharrezko primen ordainketa egiaztatuz joan beharko dau, hala bajagoko).
- Behin betiko bermea osatzen dauela egiaztatzen dauen agiria, 813,75 euroko kopuruan.
- Lizitazio iragarkiak ordaindu dauzela egiaztatzen dauen agiria.
- Jarduera ekonomikoen ganeko zergaren epigrafean alta hartu dala egiaztatzen dauen agiria, beti be indarreko ekitaldiari jagokona.
- Eskatzen dan ganerako dokumentazioa, bai administrazio baldintza berezien agirian (ABBA) bai baldintza teknikoen agirian eskatutakoak, kontratu honen adjudikazinoduna izateko, bereziki ABBAren zortzigarren eta bederatzigarren klausuletan zehaztutakoa:
- *Enpresaburuaren nortasun juridikoa eta jarduera eremua egiaztatzen dabezan agiriak.*
- *Ordezkaritza egiaztatzen daben dokumentuak.*

- *Kaudimen tekniko, finantzario eta tekniko edo profesionalagaz erlazionatutako beharkizunak beteten dirala egiaztatzen daben agiriak, beti be ABBAren zortzigarren klausulan ezarritakoagaz bat etorriz.”*

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak (Aitor Apraiz, Iker Muruaga, José Antonio Abio eta José Luis Urrutia) abstenidu egin dira.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:25ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria